



# IKASMATCH

FIND YOUR PATH

## AURKIBIDEA:

1. LABURPENA (2. orr)
  2. BALOREZKO PROPOSAMENA (3. orr)
  3. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA (4. orr)
  4. FUNTSEZKO ALIANTZAK (5. orr)
  5. DIRU-SARRERA FLUXUAK (7. orr)
  6. BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO  
KANALAK (10. orr)
  7. BEZEROAREKIKO HARREMANAK (12. orr)
  8. FUNTSEZKO BALIABIDEAK (14.orr)
  9. FUNTSEZKO JARDUERAK (17.orr)
  10. KOSTUEN EGITURA (19. orr)
-



## 1) LABURPENA:

Aurkeztutako proiektua orientazio beharra duten ikasleek plazaratzen dituzten arazoei aurre egiteko proposatzen dugun **aplikazio** bat da. Guk gaur egun (2. batxilergoko ikasleak izanda) ditugun zalantzetan oinarritutako “**IkasMatch**” izeneko aplikazioa da eta egoera berdinean dauden beste ikasleei zuzenduta dago. Bestalde, unibertsitatean dauden ikasleek edota gradu gradu zehatz bat ikasten ari diren ikasleei **dirua irabazteko** ere aukera ematen duen aplikazioa da.

Aplikazioak aukera ematen du edozein gradutan (unibertsitateko graduak, goi mailako graduak, masterrak...) interesa duen ikasle batek, gradu hori ikasten ari den **ikasle batekin kontaktuan** jartzeko. “**Tinder**” aplikazio ezagunaren formatua jarraitzen du (interaktiboagoa eta erakargarriagoa izan dadin), baina bikoteak bilatu beharrean, karrera eta unibertsitate jakin batean haien esperientzia partekatze prest dauden ikasleen profilak aurkitzeko aukera ematen du. Hau da, ikasleak intereseko duen gradua aukeratuko du eta bertan **profil desberdinak** agertuko zaizkio, hau da, pertsona ezberdinen inguruko informazioa eta beraien asmoa aplikazioa erabiltzerako orduan.

Adibidez, medikuntzan interesa izanez gero, “Medikuntza” aukeran klikatu eta bertan unibertsitate ezberdinean eta maila ezberdinean ikasten ari diren ikasle desberdinen laburpen txiki bat agertuko zaio. Tinderren bezala, interesatzen ez zaizkion profilak baztertzen joango da berak nahi duena eskuratu arte (bere beharrak eta nahimenak kontutan hartuta). Esaterako, bere helburua Euskal Herrian ikastea bada, ez zaio lagungarria irudituko Sevillan ikasten ari den ikasle batekin kontaktuan jartzea (edo agian bai).

Bide batez, interakzio-aukera desberdinak eskaintzen ditu, hala nola, **txatak, bideo-deiak eta hezkuntza-erakundeetara bisita pertsonalak**. Erabiltzaileek esperientzia akademiko eta profesionalei buruzko lehen eskuko informazioa lor dezakete, etorkizuneko hezkuntza-ibilbideei buruzko erabakiak hartzen lagunduz. Plataformak diru-sarrerak sortzen ditu hezkuntza-erakundeekin afiliatu-hitzarmenen bidez eta beste kolaborazio batzuen bidez, hala nola, erlazionatutako zerbitzuei promozioa eginez. Diru-sarreraren fluxu horien konbinazioak aplikazioaren arrakasta finantzarioan laguntzen du.

